

EUSKARA BATZORDEAK 2011ko OTSAILAREN 8an IZANDAKO BILKURARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreatuak:

Idoia Fernández and. (Euskara Zinegotzia)
Josu Erkiaga jna. (Udal Euskaltegia)
Estiñe Astorkia and. (Euskara dinamizatzailea)
Nerea Goiria (Badihardugu elk.-Ahotsak.com)
Igone Olabarria and. (Gernikako AEK)
Pernando Basterretxea jna. (Bust. Eusk. Bizi Elk.)
Igor Orue jna. (Bust. Eusk. Bizi Elk.)
Laura Etxabe and. (Seber Altube ikastola)
Bego Zabaleta and. (San Fidel Ikastola)
Anabel Gerrikagoitia and. (Mertzede ikastetxea)
Rosa Okariz and.
Maialen Basterra and. (Ezker Abertzalea)
Barrutia ikastetxeko zuzendaria
Eduarne Atxikallende and. (Busturialdeko irrati-telebista)

Idazkaria:

Bittor Zarrabeitia jna (Hizk. Norm. Tek. I)

Hasiera ordua: 19:00

Amaiera ordua: 21:00

Busturialdeko Hitza-k batzarreatu ez izana arrazoitu du, helbide elektroniko aldaketa bitarteko. Hurrengorako zuzendu egingo da.

1).- Aurreko bilerako akta (2010eko apirilaren 15koa).

Aurreko bilerako aktari buruzko ohar batzuk egin ditu Rosa Okariz andreak. Honek, akta horretako gaiei buruzko hausnarketa egin ondoren honako aipamenak edo galderak planteatu ditu:

- Plenoetako erabilera eskasa zela-eta bidalitako gutunaren inguruan erantzunik egon den. Zinegotziak azaldu dio gutuna bidali zela eta erantzunik ez dela jaso. Gainera, Osoko bilkura guztietan egiten du

erabilera eskasagatiko oharra. Atxikallende andreak ere aipatu du udal agintarien prentsaurrekoetan eskaera berezia egin behar izaten dutela euskarazko adierazpenak lortzeko.

- Kale izendegiari dagokionean, aukera paregabea galdu dela, besteak beste, “Ocho de enero kalea” euskaraz jartzeko. Zinegotziak, erabakia hartu zenean islatutako argudioak aipatu dizkio eta Euskaltzaindiaren txostenaren gainean Euskara Batzordean egindako hausnarketaren ondorioa dela azaldu dio.
- Gida-baimenaren inguruan egindakoaz baloraziorik egin den. Batzordeko idazkariak azaldu dizkio 2010ean diru laguntzak eskaintzearen arrazoia eta helburua; diru laguntza eskaerarik ez zen jaso, baina auto eskoletan eragina izan du eta, ondorioz, Jaurlaritzak hartutako konpromisoa lortu da (materiala euskaratu eta urtero eguneratu, prezio merkean eskuragarri jarrita -60€). Horren arabera, hitzarmengintza kanpainarekin batera, auto eskolekin lan berezia egingo da material horren inguruko trebakuntza lantzeko.
- Kultur Etxeko dinamikan eta programazioan euskarazko eskaintzarako irizpiderik dagoen eta jarraipenik egiten den. Zinegotziak eskaini dio informazioa; Kultur Etxeko Fundazio-buruarekin hausnarketa eginda dago, irizpideak erabiltzen dira eta, arazoa badago, euskarazko eskaintzarena da eta eskaintza horren kalitatea kasu batzuetan. Bestalde, ordenantza ere hor dago eta zerbitzu eskaintzarako irizpideak ere finkatuta, nahiz eta beti errespetatu ez.

Arestiko guztiaren arabera, hurrengo erabakiak hartu dira:

- Osoko bilkuretan euskararen erabilpena areagotzeari begirako oharrak egiten jarraitzea eta alderdi politikoei gutun/proposamen bat bidaltzea hurrengo hauteskundeetako programan hizkuntza politikarekiko konpromiso zehatzak eskatuz.
- Kale izendegiari dagokionean, Euskara Batzordeak egindako proposamenari eustea.

- Kultur Etxea eta udal saila desberdinetako jardunaldi, hitzaldi, tailer eta gainerako eskaintzarako jarraipena egiten saiatzea.

2).- 2010eko aurrekontuaren zirriborroa.-

Batzarrerako deialdiarekin bidalitako zirriborroa argitu du Euskara Zinegotziak, partidak igo, murriztu eta baztertzeko arrazoiak azalduz.

Batzartutakoen artean hausnarketa egin ondoren, **eranskinean** agertzen dena finkatu da, Udal aurrekonturako Euskara aurrekontuaren zirriborrotzat aurkezteko.

Partida batzuetako informazioa eman ahala, batzarkideek ere parte hartu dute eurei dagokien atalari buruzko iritziak eta informazioa emateko:

- Euskara dinamizatzaileak hitzarmengintza kanpainaren berri eman du (enpresak, merkataritza, elkarteak).
- Olabarria andreak Korrikaren ingurukoak azaldu ditu (apirilaren 8tik 17ra izango da eta Gernika-Lumon apirilaren 16an izango da).
- Basterretxea jaunak Euskal Herrian Euskaraz erakundearen izenean aritu da, aurtengoan Euskararen Eguna Gernika-Lumon ospatuko dela esateko (tailerrak, jarduerak, bazkaria, kontzertuak,...), martxoaren 19an, eta gonbitea egin die batzarkideei horretan parte hartzeko.
- Goiria andreak Badihardugu Elkartearen izenean mintzatu da, ahotsak.com egitasmoa Gernika-Lumon garatzen ari direla eta 2009tik honako ibilbidea azalduz.

3).- Euskara Saileko webgunea.

Euskara Zinegotziak gonbitea egin die batzarkideei webgunean sartu eta ekarpenak egiteko: bertan dauden atalak elikatzeke, kezkek eta iradokizunak aurkezteko, egin beharreko zuzenketak proposatzeko zein hutsuneak betetzeko.

Batzordeko idazkariak informazioa eskaini du webgunearen garapenaz eta aurtengoan egitekoaz (toponimia liburuaren arabera eratu beharreko toponimia atala, ahotsak.com-en dagoen informazio ikusgai/entzungai jarri, funtzionamenduaren araberrako egokipenak,...).

4).- Norberak lekarkeena.

Ez da apartekorik azaldu, aurreko puntuak aztertu ahala batzarkideek euren kezkek eta ekarpenak egin dituztelako.

Aztergai gehiagorik ez dagoenez, amaitutzat jo da bilkura.

Euskara Zinegotzia,

Batzordeko idazkaria,

Idoia Fernández Antia

Bittor Zarrabeitia Bengoa

ERANSKINA

**EUSKARA ARLOKO AURREKONTUA -2011 -
ZIRRIBORROA**

A.- ONDORENGOETARATZEA

• **IRAKASKUNTZA**

- AHOZKOTASUNA LANTZEN
 - IDAZLAN KOADERNOA 2000 + Hezkuntza 13000
 - IRAKURZALETASUNA BULTZATU (Gaztezulo)..... 2500
 - ABESBATZEN KONTZERTUAK
 - ANTZERKI ASTEA
 - DANTZARI EGUNA
 - ...
- BERTSOLARITZA SAIOAK Kultura 3000
- NORMALIZAZIO PLANAK (irakaskuntza zentroetarako diru laguntzak) 20000
- IKASLE ETORKINEI IKASTAROAK 7000

• **HERRITARREN EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEA**

- IKASTALDE BEREZIAK 2500
- DIRULAGUNTZAK (euskara ikasi eta euskaraz trebatzeko)..... 16000
- BERBALAGUN (hitzarmena: AEK) 14000 + 4500
- ETORKINAK (hitzarmena: AHIZE) 12000 + 2500

• **FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA**

- FAMILIAKO KIDE BERRIEI ZUZENDUA (BABEROAK)..... 1500
- FAMILIAN ARITZEKO (URE elkarte) 8500
- EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA 0

B.- ERABILERA

• **ENPRESA MUNDUA**

- HITZARMENGINTZA (ARTEZ enpresari adjudikazioa)..... 34000
- ENPRESETAKO PLAN ESTRATEGIKOAK (diru laguntzak)..... 12500
- KONTSEILUA (hitzarmena: Euskarari bai dinamika eta Euskararen Ziurtagiria)..... 3000 + 2400

• **AISIA**

- KALE HEZITZAILEAK (mankomunitatearekin elkarlana)..... 1800
- EUSKAL KULTURA ETA AISIA
- UDAN ZER EGIN
- ASTEBURUAN ZER EGIN

• **ARGITARAPENAK**

- EUSKARAZOKA (URE elkarte)..... 700
- BERRIPAPERA 1700

• **JAIALDIAK**

- EUSKARAREN ALDEKO EGUNA, NAZIOARTEKOA, KORRIKA..... 5000

C.- ELIKADURA (Ondarea)

• **CORPUS PLANGINTZA**

- TOPONIMIA: liburua aurren ateratzekoa da! Azkenean! 2000
- Ahotsak proiektua (hitzarmena: Badihardugu Elkarte)..... 6180

• **LIBURUGINTZA**

- UNITATE DIDAKTIKOAK (5.A eta 6.a)..... 1700



- **HEDABIDEAK**
 - HITZA 50000
 - BAGABIZ 7000
 - OIZMENDI Partida berezia (50.000)

D.- BESTELAKOAK

- **FRONTE BERRIAK IREKITZEA**
 - ANBULATEGIA MATERIALA **ETA EUSKARA ZERBITZUA**
 - KIROLA: Abixadan **1000**
- **HERRIAREKIKO HARREMANA**
 - WEBGUNEA (toponimia, **5000**
 - EUSKARA BATZORDEA **EUSKARA ZERBITZUA**
- **KALE NEURKETA** (erabilera: Soziolinguistika Klusterra) **4000**

233.980€

2010ean, 233.000€